

# **Eman bakea literaturari**

—Aurizberriko irakurle taldekoen adierazpena—

Aurten laugarren ikasturtez Aezkoa, Erroibar, Auritz, Artzibar, Luzaide eta Orreagako literaturazaleok aukera daukagu literaturaz euskaraz solastatzeko.

Aurizberrin biltzen gara giro goxo eta adiskidetsuan norberak bakardadean irakurri liburuak sortu dizkion hausnarketa, sentimendu eta iritziak askatasun osoz taldeko besteekin partekatzeko.

Saio zinez aberasgarriak gertatzen dira beti. Badira inarrosi gaituzten liburuak, badira gure bizitzaren oihartzunak ekarri dizkigutenak, badira ere gertakari eta bizipen ezezagunen berri eman dizkigutenak. Batzuk Euskal Herrikoak, beste batzuk euskararen bitartez kanpotik ekarriak.

Urteotan ikasi dugu gure barnean sortzen diren pentsamenduak hitzetan jartzen, besteei ulertarazteko moduan. Ikasi dugu ere besteei entzuten, haien iritziak kontuan hartuz.

Baina, batez ere, solasaldi hauei esker gure literaturazaletasunean sakondu dugu, literaturaz ikasi dugu eta saiora sartu ginen baino aberatsago atera gara: irakurria genuen liburua kolore berriz ikusi dugu solasaldian parte hartzen dugunoi esker.

COVITE elkartearen eskaera bati erantzunez Nafarroako Gobernutik solasaldien antolaketan parte hartzen duten udalerriei errekerimendua iritsi zaie, bere izengoiti literarioz Mikel Antza gisa ezaguna den Mikel Albisu Iriarteri berorien kudeaketaren ardura ken diezaioten. Modu horretan, inongo epaitegik edo auzitegik halakorik agindu gabe, herritar libre gisa lanerako duen eskubidea ukatu nahi diotela dirudi.

Adierazpen hau sinatzen dugun Aurizberriko irakurle taldeko kideon ustez, solasaldiak antolatzeko ardura duen Mikelen aurkako eraso ez ezik literaturaren eta euskararen kontrako eraso ere bada honakoa. Eta eskatzen dugu bakean utz gaitzela orain arte bezala denon aholkuak entzunda Mikelek proposatzen dizkigun irakurgaiez gozatzen.

Bide batez, Euskal Herriko irakurle taldeetako arduradun zein parte-hartzaileei ere eskaintzen diegu adierazpen hau sinatzeko aukera, [www.emanbakea.eus](http://www.emanbakea.eus) webgunearen bitartez. Webgune horretan bertan aurkituko duzue urteotan Mikelek proposatuta irakurri eta solasgai izan ditugun liburuen zerrenda.

Ainhoa Mendia Orradre, Aitziber Larrea Saragueta, Eneko Villegas  
Amezqueta, Itziar Mitxelena Gamio, Jaione Orotz Torrea, Jokin  
Campion Gaston, Kontxesi Pedroarena Elizagarai, Leire Barberena  
Rota, María Jesús Rota Laurenz, Maria Angeles Rota Laurenz, María

Carmen Galarza Larrayoz, Olatz Aldasoro Martinez de Ilarduya, Tere  
Iribarren Larrea, Teresa Fagoaga Rekalde, Xanti Begiristain Madotz